

Deialdia, Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Udalen Batasuneko kontu-hartzailea izateko lanpostua aldi baterako administrazio kontratuarekin eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.

OINARRIEN LABURPENA.

1. Arau orokorrak.

1.1. Helburua: Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Udalen Batasuneko kontu-hartzailea izateko lanpostua betetzea aldi baterako administrazio kontratuarekin eta oposizio-lehiaketa bidez eta enplegu poltsa sortzea geroko beharretarako.

1.2. Kontratuaren iraupena: egokituko da titularraren eszedentzia aldira. Froga aldia 2 hilekoa izango da.

1.3. Lansaria: lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen B mailari dagozkion lansariak izanen ditu. Orobat eskuratuko dira plantilla organikoan ezarrita dauden osagarriak.

1.4. Lanaldia: zerbitzuaren beharretara egokituko da.

1.5. Funtzioak: kontu-hartzaile, diruzain eta arlo ekonomikoaren arduradunarenak.

1.6. Enplegu poltsa osatuko da eta 814/2010 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera kudeatuko da.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

- a) Espainiako herritarra izatea.
- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Diploma Zuzenbidean, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan edo baliokideak.
- d) EGA edo baliokidea edo jakite-maila egiaztatzeko probak gainditzea.
- e) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.
- f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana.

3. Prozedura: presazkoa, Enplegu Zerbitzuaren bitartez.

4. Eskabideak.

4.1. Eskabideak Iturengo Udaletxean aurkeztu behar dira edota 39/2015 Legeko 16.4 artikulua jartzen dituen baliabideak erabilita.

4.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren araberrakoak izanen dira, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharr guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

4.3. Epea: 10 egun natural deialdiaren argitalpenetik hasita.

4.4. Eskabidearekin batera dokumentazioa konpultsatua aurkeztu behar da: NAN, 2 c) eta d) oinarrietako tituluak, enplegu txartela eta merezimenduak.

5. Behin-behineko zerrendak: lehendakariak onetsi eta Iturengo Udaletxeko Iragarki Oholean eta web orrian argitaratuko dira. Erreklamazioak aurkezteko epea: 5 egun natural.

Aldi berean, probak egiteko tokia eta data argitaratuko dira.

6. Behin betiko zerrendak: lehendakariak onetsi eta Iturengo Udaletxeko Iragarki Oholean eta web orrian argitaratuko dira.

7. Kalifikazio epaimahaia. Lehendakaria eta 4 mahaikidek osatuko dute. Idazkaria izendatuko da kideen artean.

8. Hautapen prozesua.

8.1. Euskara proba. Baztertzalea izango da eta Malerreka Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egingo die EGA aurkeztu ez duten hautagaiei.

8.2. Oposaketa. 2 azterketa egingo dira (teorikoa eta praktikoa) iraila hilabeteko erdialdean:

- Teorikoa. Gai zerrenda osoan dauden gaiei buruz, labur erantzun beharreko galdera sorta bat erantzutea idatziz.

- Praktikoa. Kasu praktikoa.

Oposizioa ariketen balorazioan 80 puntu lor daitezke gehienez, honela banatuak: lehen ariketa, 40 puntu gehienez; bigarren ariketa, 40 puntu gehienez. Gainditzeko, 40 puntu lortu behar da gutxienez bi ariketen artean.

Bi ariketak plika sistemaren bidez egiten dira.

9. Merezimenduen balorazioa. 20 puntu gehienez. Baloratzen dira Nafarroako toki entitate batean kontu-hartzailetzako lanpostuetan egindako zerbitzuak; deialdi honetan eskatutako titulazio bera eskatu den lanpostuetan edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuak; ikastaroak.

10. Prozesua gainditzeko dutenen zerrenda eta agiriaren aurkezpena. Lehiaketaldia eta oposizioaldia bukatutik, kalifikazio epaimahaiak prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda argitara emanen du. Lanposturako

proposatutako izangaiak 5 egun natural izango ditu eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatearen agiria aurkezteko.

11. Kontratazioa. Aldi baterako administrazio kontratua egingo da. Izangai izendatuak aste beteko epea izanen du lanpostuaren jabetza hartzeko Iturengo Udaletxean.

12. Errekurtsoak. Deialdi honen eta bere oinarrien aurka eta, orobat, oinarriak aplikatzeko ematen diren egintzen aurka, errekurtso hauek paratzen ahal dira: gora jotzeko errekurtsoa, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa edota altxadako errekurtsoa. Kalifikazio epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da Elkarteko Lehendakariaren aurrean.

Ituren, 2017ko abuztuaren 17a.

Iturengo alkatea eta Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasuneko lehendakaria, M. Jose Bereau Baleztena.

ESKABIDE EREDUA

Izena: ,
adinez nagusia, NAN zenbakia: , jaioteguna:
..... , jaioterria: (.....), nazionalitatea:
..... , egungo helbidea: (.....), kalea:
..... zenbakia: , posta kodea: ,
telefonoa: , helbide elektronikoa:
..... , zure aurrean agertu eta
AZALTZEN DUT:

Deialdi honetan onartua izatea eskatzen dudala: Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Udalaren Batasuneko kontu-hartzailea izateko lanpostu bat, euskaraz jakin beharrekoa, oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako betetzeko deialdia.

Lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dudala.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere ez dudala.

Ez nautela ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizi disziplina espediente bidez, eta ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatutako titulazioaren frogagiria aurkeztu dudala.

Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.

– Euskara maila frogatzen dut. (*Adierazi X batez zein den*).

– Euskara proba egin behar dut. (*Adierazi X batez zein den*).

– Minusbaliotasuna dut eta, beraz, aipatzen dudana egokitzapena eskatzen dut, azaltzen ditudan arrazoiengatik. (*Beste orri batean zehaztuko dira minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak*). (*Adierazi X batez hala bada*).

Merezimendu hauek nahi dudala baloratzea lehiaketan:

Epaimahaiari baimena ematen diodala sakelako telefonoa erabiltzeko, hautapen probak zein toki, egun eta ordutan egingen diren mezu bidez jakinarazteko.

HORRENBESTEZ:

Eskatzen dut eskabide hau onar dadila.

(Eguna eta sinadura)

ITURENGO UDALEKO ALKATEA ETA DONEZTEBE-SANTESTEBAN,
ELGORRIAGA, ITUREN ETA ZUBIETAKO UDALAREN BATASUNEKO
LEHENDAKARIA.